

	OÑATIKO UDALA	
	Eregistro Data	
2013 MAI 28		
SARKERA	IRTEERA	
1048		

Oñatiko Bilduko Udal Taldeak Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

MOZIOA

“Onkologikoa kolokan dago bere etorkizuna zalantzan jartzen dituzten erabakiak hartzen ari direlako; Onkologikoan urteak lanean daramatzaten profesionalek eta langileek salatu duten moduan. Onkologikoak gipuzkoarrei orain arte eman dien zerbitzua ematen jarraitzea nahi badugu, kezka hauei kasu egin behar diegu.

Honengatik guztiagatik Oñatiko Udalak Onkologikoaren defentsa irmoa egin behar du. Horretarako Onkologikoa Osasun Zerbitzu Publikoa den Osakidetzan sartzeari eskatu behar da, jendarte guztiaren esku dagoen zerbitzua ziurtatzeko dagoen bide bakarra baita.

Onkologikoaren biziraupena eta zerbitzua bermatzea Oñatiko Udalaren ardura ere badelako; Onkologikoaren jardura nagusiak osasungintza publikoa izan behar duelako; herrialdeko gaixotasun onkologikoak artatzeko zerbitzu espezializatu gisa erreferente izaten jarraitu behar duelako eta jendarte guztiaren zerbitzura egon behar duelako, honako mozio hau aurkezten du Oñatiko Udalak aztertu eta onartu dezan:

1. Oñatiko Udalak Onkologikoaren eta bertako langileen aitortza egin nahi du, alor honetan urte luzetan egin duten lanagatik. Lan honek Onkologikoa mantendu, zaindu eta babestu beharreko erreferentean bilakatu du, beti ere jendarte guztiari zuzendutako zerbitzu bezala.
2. Oñatiko Udalak Onkologikoa, Osakidetzan, Osasun Publikoaren Sistemari, sartzeko nahia adierazten du eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dadila Kutxako Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekintzarekin eskakizun hau errealitate bilakatzeko beharrezkoa den plangintza adosten. Plangintza horretan eman beharreko urratsak, epeak eta bi erakundeen kulturak uztartzeko ibilbidea jaso beharko dira.
3. Oñatiko Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Kutxako eta Kutxabank-eko zuzendariei eskatzen die, adostutako zuzendaritza baten baitan garatuko den trantsiziozko epealdi honetan berma dezatela Onkologikoak biziraupenerako behar duen diru-hornidura. Hornidura honek, gutxienean, orain arteko kopuru berekoa izan behar du.
4. Oñatiko Udaleko Osoko Bilkura honek hartutako erabakiak jakinarazi behar die:
 - Kutxako Batzarrari eta bere Gizarte Ekintza Batzordeari
 - Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari
 - Osakidetzako Zuzendariari
 - Oñatiko herritarrei

Oñatin 2013ko maiatzaren 29an”

